

Enfoka-Trends 2020ko ekaina

“ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOA(ESK)/JASANGARRITASUNA ETA COVID-19”

Azken urteotan jasangarritasunarekin lotutako paradigma aldatzen ari dela dakusagu. Merkataritza-banaketaren sektoreak nabarmen handitzen ditu karbono-isuri globalak, eta, beraz, eragile garrantzitsua da. Izan ere, munduak aldatzen jarraitzen du, orain arte baino azkarrago eta sakonago, eta enpresengan jarri ditugun itxaropenak hazten doaz. Dagoeneko ez da nahikoa kalitate onarekin eta prezio baxuekin ekoiztea, eskuragarri egongo direla bermatuz. Garrantzitsua da, baita ere, pertsonen eta ingurumenaren kalterik sortu gabe ekoiztea. Hornidura-kateentzat gardentasunaren aldeko prozesua da hori.

Oraintsuko ildo horretan argitaratu da [Rebuilding a more sustainable fashion industry after COVID-19](#) txostena, Sustainable Apparel Coalition, Boston Consulting Group eta Higg Co enpresek egina. Txosten horretan, modaren industriaren egoera aztertzen da COVID-19aren harira, eta indartuta atera dadin nola jokatu gomendatzen da, jasangarritasuna kontuan hartuz, betiere. Bestalde, FORETICAK (Enpresen Gizarte Erantzukizuna bultzatzen duen Enpresen eta Profesionalen Elkarteak) COVID-19aren krisiari irtenbide arduratsu eta jasangarrien bidez aurre egiteko nabarmendu diren proiektuak biltzen dituen [plataforma bat sortu du](#).

Beste zenbait erakundek, hala nola AMFORI enpresa elkarteak (merkataritza ireki eta jasangarriaren lider globalak), [Responsible Purchasing Practices in times of COVID 19](#) gida sortu du, eta, horren bidez, hornidura-katea arduratsua izan dadin hainbat gomendio ematen ditu. Elkarteak, gainera, esparru praktikoa bat eta goi-mailako tresnak eskaintzen dizkie bere kideei, hornidura-kateen gizarte- eta ingurumen-jarduna kudeatzeko, joerak aurreratuz, politika progresiboaren alde eginez, prestakuntza-aukera zabala eskainiz eta merkataritza jasangarriaren aldeko arau-esparrua defendatuz.

Berriki, EY eta DIRSE elkarteek elkarrekin landutako [Impacto de la COVID-19 en las prioridades de la RSC/Sostenibilidad y en el rol de sus profesionales](#) azterlanaren emaitzen aurkezpen digitala egin dute, Bertan nabarmentzen da Enpresen Gizarte Erantzukizunaren garrantzia handituz doala lehentasunak aldatuta ere.

2015etik martxan dagoen Blue Number ekimena ere nabarmentzekoa da. Nazio Batuen, Global Standard 1 eta International Trade Center elkarten bidez abiarazitakoa, nekazari jasangarrien munduko erregistro bat kudeatzean datza, nekazaritza jasangarriago bat eta balio-kateetan lotura hobek sustatzeko helburuarekin.

Ekimen horiek Zero Waste edo ekonomia zirkularren gorakadaren bidez berretsi dira. Eredu ekonomiko berri honek ekonomia lineala (hau da, erauzi, ekoiztu, kontsumitu eta bota) ekonomia zirkularrekin (hemen baliabideak ekonomian mantentzen dira ahalik eta denbora gehien) ordezkatu nahi du. Kontsumitzaileak gero eta gehiago jabetzen dira produktuei zer gertatzen zaien erabileraren ondoren, eta positiboki baloratzen produktuen bizitza baliagarria bigarren ziklo batekin luzatzen duten saltokiak egotea.

2016an Euskadin ekonomia zirkularreko irizpideak aplikatu zituzten produktu eta zerbitzuek sortutako fakturazioa 2.852 milioi eurotan zenbatetsi da, eta enpresen fakturazio osoaren % 28 da. Enpresek egindako aurreikuspenen arabera, ekodiseinatutako produktuen edo zerbitzuen salmentek hazkunde handia izan dute, bai kopuru absolutuetan, bai ehunekoetan; hala, 2020an 7.250 milioi eurora iritsiko dira. Etorkizunerako aurreikuspenen arabera, 2030ean 10.000 milioi euro baino gehiagokoa izango da produktu, zerbitzu edo prozesuen berrikuntzen ondorioz, eta, horien bidez, produktuaren bizi-zikloan zehar ingurumen-inpaktua murriztea lortuko da.



[Charles Etoroma](#) argazkia [Unsplash-en](#)

BIBLIOGRAFIA

- Deloitte (2020). Tendencias minoristas 2020. 2020ko ekainaren 29an hemendik berreskuratua: <https://www2.deloitte.com/uk/en/pages/consumer-business/articles/retail-trends.html#>
- Club de excelencia en sostenibilidad (2020). Sostenibilidad en Cadenas de Suministro Globales. 2020ko ekainaren 29an hemendik berreskuratua: <http://www.club sostenibilidad.org/tendencias/comercio-abierto-y-sostenible/>
- International Trade Centre (2015). Comercio sostenible para todos. 2020ko ekainaren 29an hemendik berreskuratua: <http://www.intracen.org/articulo/Comercio-sostenible-para-todos/>
- Global Standard 1 (2015). La iniciativa Blue Number: un registro global para los productores sostenibles. 2020ko ekainaren 29an hemendik berreskuratua: https://www.gs1co.org/Portals/0/Contenido/blue_numbers_gs1colombia.pdf
- DIRSE (2020). Impacto de la COVID-19 en las prioridades de la RSC/Sostenibilidad y en el rol de sus profesionales. 2020ko ekainaren 29an hemendik berreskuratua: <http://www.dirse.es/aumenta-relevancia-rsc-cambian-prioridades-informe-ey-dirse/>
- Diario Responsable (2020). El coronavirus evidencia la importancia de la sostenibilidad en la empresa. 2020ko ekainaren 29an hemendik berreskuratua: <https://diarioresponsable.com/noticias/29024-el-coronavirus-evidencia-la-importancia-de-la-sostenibilidad-en-la-empresa>
- Albert Vilariño (Compromiso empresarial, 2020). Sostenibilidad, aliada de la industria de la moda para superar la crisis de la COVID-19. 2020ko ekainaren 29an hemendik berreskuratua: <https://www.compromisoempresarial.com/coronavirus/2020/05/sostenibilidad-aliada-industria-moda-superar-crisis-covid19/>
- Carolina Cortés (Planeta huerto, 2020). Zero Waste: la alternativa para la reducción de residuos. 2020ko ekainaren 29an hemendik berreskuratua: https://www.planetahuerto.es/revista/zero-waste-la-alternativa-para-la-reduccion-de-residuos_00597
- Ihobe (2020). Estrategia de Economía Circular de Euskadi 2030. 2020ko ekainaren 29an hemendik berreskuratua: <https://www.ihobe.eus/publicaciones/estrategia-economia-circular-euskadi-2030-2>
- Revista Técnica de Medio Ambiente (2020). El Gobierno Vasco aprueba la Estrategia de Economía Circular de Euskadi. 2020ko ekainaren 29an hemendik berreskuratua: <https://www.retema.es/noticia/el-gobierno-vasco-aprueba-la-estrategia-de-economia-circular-de-euskadi-ciDON>

LOTUTAKO WEBAK

- Red AMFORI - España: <https://www.amfori.org/content/amfori-network-spain>
- Blue number: <https://www.blunumber.com/en/blunumber/>
- FORETICA: <https://foretica.org/>

LOTUTAKO BIDEOAK

- 10 empresas muy rentables que contribuyen al medio ambiente: <https://www.youtube.com/watch?v=O6OHNmazY0o>
- 10 empresas muy rentables que contribuyen al medio ambiente 2: <https://www.youtube.com/watch?v=AP5-Txvb2uY>

EUSKADIKO SALTOKI JASANGARRIEN ADIBIDEAK

- Ekobizi - Sancho el Sabio, 29 (Vitoria-Gasteiz): <https://www.ekobizi.com/>
- Mamia - Pintor Díaz de Olano 11-13 (Vitoria-Gasteiz): <http://mamiagasteiz.com/mamia/?lang=es>
- Solgranel - Sancho el Sabio, 16 (Vitoria-Gasteiz): <https://www.solgranel.es/tiendas-a-granel/>
- Sin Plastico - Anselma de Salces, 19 (Bilbao): <https://www.sinplastico.com/es/>
- Rzik - Correo, 25 (Bilbao): <http://www.rzik.es/>
- Bizislow - Arteagabeitia, 10 (Barakaldo): <https://www.bizislow.com/>
- Banbú - Nafarroa Hiribidea, 19 (Arrasate) : <https://www.banbu.es/>
- T-Wild Clothing - Arana Goikoa, 6 (Azpeitia): <https://twildclothing.com/es/tienda/>
- Pepita y grano - Antonio Arzak Kalea, 1 (Donostia): <https://pepitaygrano.com/>